

KIMIKA GRADUAN KANPO-PRAKTIKENGATIK KREDITUAK ONARTZEKO PROZEDURA

Hautazko kredituen aitortpena

Ikasleek hautazko **6 kreditu** aitortzea eskatu ahal izango dute, curriculumetik kanpoko praktikak egin izanagatik. Onarpen hori Graduako Ikasketetan Kredituak Aitortu eta Transferitzeko Araudian ezarritakoaren arabera arautuko da. Ondorio horietarako, 25 orduko praktikaldi bakoitzak ECTS kreditu baten balioa izango du.

Salbuespen modura, atzerriko enpresetan praktikak egiteagatik 12 kreditutara igo daiteke errekonozimendua, praktikak ikasleen mugikortasun egonaldiak lotzeko erabilgarriak direnean.

Izapideak

1. Ikasleak *GAUR–Borondatezko praktikak* aplikazioaren bidez praktikak egin dituela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatu beharko du. Ziurtagiri hau eta eskaera-inprimakia behar bezala beteta, Ikasleen Idazkaritzara joan eta hautazko kredituen aitortpena eskatu beharko du ezartzen diren epeetan.
2. Ikastegiko Batzorde Akademikoak gehienez ere hiru hilabeteko epean erabakiko du, Ikastegiko Idazkaritzan aitortzeko eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kimika Fakultateko Batzarrak 2024ko uztailak 9an egindako bileran erabaki zuen aitortza hau egiteko irizpide orokor batzuk finkatzea. Irizpide horiek ezartzean, onartutako praktikak unibertsitateetik kanpoko esperientzia izatea bermatzea izan da helburua. Hori dela eta, ez dira onartuko UPV/EHUko antolamendu-unitateetan edo ondoren zehazten diren ikerketa-zentroetan egindako praktikak.

Kredituak aitortzeko **irizpideak**:

- Ikastegiko Batzorde Akademikoak kanpo-praktikengatik egindako kredituen aitortpen-eskaerak ebaluatuko ditu.
- UPV/EHUko Antolakuntza Unitateetan egindako kanpoko praktikengatik ez da hautazko krediturik onartuko.
- BERC-Polymat, DIPC edo CFM ikerketa-zentroetan egindako kanpo-praktikek ez dute kreditu-aitortpenik ekarriko.
- 2. eta 3. puntuetan aipatu ez diren zentro edo enpresetan egindako praktikei ECTS bat emango die batzordeak 25 orduko praktikaldiaren truke.

Gehieneko epea igaro eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, eskaria egin duenak administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ahal izango du.

Gora jotzeko errekurtsua:

Errekonozimendu-eskaera ebazten duen Ikastegiko Batzorde Akademikoaren ebazpenaren aurka, gorajotze-errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errektoreari, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.